

INDARKERIA MATXISTA

ZER ATERA DUGU AZKEN URTEETAKO BORROKATIK?



LARRUN #306

BORTIZKERIA IKUSGARRI EGITETIK, ARDURA HARTU ETA ERREPARAZIORAKO BIDEAK ANTOLATZERA

EGILEAK | **LEIRE ARTOLA ARIN ETA ONINTZA IRURETA AZKUNE**

AZALA | **IÑAKI LANDA** MAHAI-INGURUKO ARGAZKIAK | **DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA**

Azken bi hamarkadetan indarkeria matxistaren gaia lehen lerrora ekarri du mugimendu feministaren borrokak, besteak beste, eta bikote arteko indarkeria edo “familia arazo” gisa deskribatzen zenak, eremu publikora eta kalera egin du salto. Indarkeria matxistaren aurkako olatua indartsua izan da: ikusgarri egin da, emakumeek kaleak hartu dituzte, gizonak interpelatu dituzte, eta egiturazko arazoa dela nabarmendu dute. Urte gutxian lege berriak eta teorikoki aurreratuagoak ezarri dituzte. Baina zertarako balio izan du horrek? Prozesu judizialek on egin dute? Jendarteak prest dago arazoaren tamaina

onartzeko? Gizonek noiz hartuko dute ardura? Olatuak zer-nolako arrastoa utzi du?

Kaleko olatua baretzen eta kapitalismoa feminismoa edukiz husten ari den honetan, emakumeek jarraitzen dute bestelako bideak probatzen: justizia feminista, prozesu komunitarioak, sare sozialetako salaketak... Horien guztien aukerez eta mugez eta egingadako bideaz gogoetatu dute Idoia Arraiza Emagin elkarteko kideak, Alejandra Codesal Gasteizko Mugimendu Feministako kideak eta Garazi Plazaola Irule Abokatuak taldeko abokatuak. Argi dute: indarkeria jasan duen pertsonaren erreparazioan jarri behar da fokua, eta ardura kolektibotik erantzun behar zaio indarkeria matxistari.

LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA · ARGIAren 2.914 zenbakiarekin banatua.

JABEA: KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45

POSTA ELEKTRONIKOA: LARRUN@ARGIA.EUS **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAITANE GARTZIANDIA

2025eko apirilaren 20a

■ **Azken urteotan salaketa kopuruek gora egin dute eta bide judizialean sakondu da. Zertarako balio izan du? Zein muga ditu?**

GARAZI PLAZAOLA: Hasierako kolpean harritzen dit aipatzen duzuela salaketen ehunekoa gorantz doala. Egia da datuak eta estatistikak ikusita badirudiela tendentzia goraka doala. Baina Iruleko esperientziak erakusten digu indarkeria matxistaren ehuneko handiena ez dela salatzen, ez dela judizializatzen. Datuek baieztatzen dute gure sententzia: konparatzen badugu inkesten arabera zenbateko genero indarkeria dagoen eta zenbat salaketa jartzen diren, %5,7-%6 bakarrik salatzen direla ondoriozta dezakegu. Salaketek gorantz egiteko arrazoia izan

daiteke gaur egun emakumeok askoz ere modu zehatzagoan ari garela indarkeriak identifikatzen, baita salatzeke legitimotasuna irabazten ere, besteak beste, azken urteetan mugimendu feministak egin duen lanari esker.

Lege markoari dagokionez, aurre-urteetan egon dira. 2004an atera zen Genero Indarkeriaren Aurkako Lege Integrala Espainiako Estatuan, eta aurreko testuingurua oso bestelakoa zen. *Soilik baietz da baietz legea* (2022) azpimarratuko nuke, horrek ere tresna batzuk ekarri dituelako bide judizialean sakontzen laguntzen dutenak, baita bide judizialek kanpo ere.

Baina bide judizialean muga asko ikusten ditugu. Abokatu, epaile, fis-

kal edo dena delako operadore juridikoek formazio eta gaitasun falta dute genero ikuspegian. Ez da soilik sentsibilizazioa landu behar dutela, ezta genero marka duten delituetan ezagutza teknikoak izan behar dutela ere, baizik eta ulertu behar dutela indarkeria matxistaren egiturazko erroa eta nola eragiten duen kasu bakoitzean. Formazio hori exijitu behar diegu, 2004ko legeak ere hein batean jada jasotzen zuena.

Beste muga bat da justiziarako sarbidea ez dela unibertsala: doako justizia sistema, erabat beharrezkoa dena, porrotean dago. Oso prekari-zatuta dago, eta etengabe ikusten dugu nola ofiziozko abokatuak ar-tatutako emakumeek askotan espe-rientzia txarrak dituzten.



EZKER-ESKUIN: Garazi Plazaola, Idoia Arraiza eta Alejandra Codesal. "Justizia feminista da erasoak jasotzen dituen pertsonaren duintasuna eta erreparazioa erdian jartzen dituen justizia", gogoetatu du Emagineko kide den Arraizak.

Mahaikideak

IDOIA ARRAIZA ZABALEGI

EMAGIN ELKARTEKO KIDEA

Iruñean jaioa, 1987an. Ikasketaz psikologoa da eta Ikasketa Feminista eta Generokoen masterra du. Emagin elkartean egiten du lan 2011tik. Ikerketa, aholkularitza eta formazioak egiten ditu bertan, bereziki indarkeria matxistaren eta autodefentsa feministaren ildotik: jaien testuinguruan, sentsibilizazioan, protokoloak sortzen... Elkarte eta mugimendu barruko indarkeria kasuen kudeaketan laguntzen du. Gaztetatik mugimendu feministan eta hainbat kolektibotan parte hartu du.

ALEJANDRA CODESAL CELORIO

GASTEIZKO MUGIMENDU
FEMINISTAKO KIDEA

Gasteizen jaioa, 1994an. Gasteizko Mugimendu Feministako kidea da, eta herri mugimenduko perspektibatik jarduten du. Azken urteetan protokolo lantaldean parte hartu du, eta jai esparruko zein beste espazio batzuetako erasoak artatzeko protokoloak landu ditu bertan. Eraso zehatzetan akonpainamendua egin du, eta egun, indarkeria lantaldean dago antolatuta. Izan dituzten esperientzietatik ikasitakoarekin hausnarketa prozesuan ari dira, eta indarkerien aurrean eman beharreko erantzunak lantzen. Gasteizko hainbat eragilerekin elkarlanean dihardute.

GARAZI PLAZAOLA UGARTE

IRULE BULEGOKO ABOKATUA

Legazpin jaioa, 1989an. Ikasketaz Zuzenbidean lizentziatua da, eta Giza Eskubide eta Botere Publikoen masterra du. Abokatu gisa lanean dabil 2014tik, eta Irule Abokatuak taldeko sortzailea eta kidea da. Bulego horren bidez ikuspuntu feministatik ematen dituzte zerbitzu juridikoak, ohiko jardun juridikoa beste modu batera egitea beharrezkotzat jotzen dutelako. Batik bat familia barneko eta oro har indarkeria matxistari lotutako kasu partikularrekin egiten dute lan, epaitegian zein epaitegitik kanpo. Emakumeen etxeetan eta udaletan aholkularitza juridikoa ematen dute, eta formazioak ere eskaintzen dituzte, besteak beste, indarkeria matxistari lotutako azken legeetako edukiak azaltzeko.



Bestalde, prozesu judizialek indarkeriaren gatazka murrizten dute, indarkeria jasan duen emakumearen eta indarkeria eragin duen pertsonaren arteko harremanera. Epaitegietan ez da egiturazko arazo gisa tratatzen, nahiz eta legeetan-eta badagoen aitortza politiko hori, kokatzen duena egiturazko indarkeria gisa eta sistema patriarkalaren barnean. Gatazkaren erroa bera ukatzen badugu, prozesu judizialak ez dauka potentzialtasun nahikorik kalteari eta sakoneko gatazkari aurre egiteko. Horrekin ez dut esan nahi ez duenik ezertarako balio; inpunitaterik ez izateko behar ditugu tresnak. Azken finean, sistema judizialean eror gaitetze edonor edozein momentutan, eta are gehiago pertsona zaurgarriak. Testuinguru honetan indarkeria izugarria bizi dugu egunero, eta emakume askok behar dute tresna hau, nahiz eta ez bete nahiko genituzkeen beharrak, gutxieneko segurtasun eta ongizatea bermatzeko bidea delako.

■ **Nola baloratzen duzue prozesu judizialaren bidea? Dituen mugek eragiten dute ez salatzea gehiagotan?**

IDOIA ARRAIZA: Ez dut hain barrutik ezagutzen sistema judiziala, baina nire esperientziatik diot duela hamar bat urte instituzioetatik asko zabaldu zela *salatu, salatu, salatu* leloa, emakumeentzat salbazioa izango balitz bezala; eta ikusi dugu bide horrek ez duela balio. Azken urteetako ikaspena izan da, prozesu judizialak dituen mugak sozializatu dira. Lehen oso gauza ezezaguna zen guretzat, ez ziguten konfiantza ematen epaitegiek, baina gaur egun zuzenean ikusten dugu, filtratutako bideoengatik-eta, ze esaldi botatzen dituzten, nola berbiktimizatzen den... Oso gogorra da prozesu horretatik pasatzea, indartsu egon behar zara.

Nire ustez muga nagusia da ebazpena zentratzen dela erasoaren egin duenaren zigorrean, eta ez era-



**“KOMUNIKABIDEAK ARRETA
IZUGARRIA EMATEN ARI
DIRA BIDE JUDIZIALARI, ETA
BERMEAK BESTE NONBAIT
DAUDE. KOLEKTIBITATETIK
ETA BABES SAREETATIK
ANTOLATU BEHAR DITUGU
ERANTZUNAK”**

ALEJANDRA CODESAL

soa jasan duenaren erreparazioan. Paradigma hori oso mugatua da, eta indibidualizatzailea. Emakumeek behar dutena askotan ez dator bat inola ere sistema judizialak eskaintzen duenarekin. Are gehiago, prozesu horretan indarkeria instituzionala ere jasaten dute, emakumeen hitza zalantzan jartzen da eta errudun sentiarazten dituzte.

Errelatoaren guda da asotan joan dagoena, badirudi epaia zure aldekoa bada esan dezakezula “nirea egia zen”. Horretarako frogak objektiboak eskatzen dituzte, baina batzuetan oso zaila da hori. Kasu asko artxibatzen dira frogak faltagatik, ebatzi gabe akusatua erruduna edo errugabea den, baina ez duteenez kondenatu, baliatzen dute esateko emakumea gezurretan ari zela, eta salaketa jartzen diote. Epaiketa irabazteak gehiago du errelatoaren gudan babesa irabaztetik, benetan justizia egin dela edo erreparazioa jaso duzula sentitzetik baino.

PLAZAOLA: Prozesu judiziala paternalista da, eta emakumeen sententzioa da agentzia galtzearena, infantilizazioarena: espektatiben frustrazioa dute, beraien denborekin ez dator bat, beraien hitza hor kokatzea zaila da... Operadore juridikoek duten gaitasun faltagatik eta

kultura matxistagatik –gizartean dagoen berbera baitago–, estereotipo eta aurreiritziek sortzen duten imajinarioak dakar emakumeenganako begirada okerra: pertsona irrazional, zoro, desorekatu moduan ikusten dituzte, besteak beste, prozesuak berak emakumeengan sortzen dituen ondorioengatik. Prozesuak eskatzen du emakumeak oso-oso koherenteak izatea, kronologikoki perfektuak... eta justu indarkeria matxistan ez da hori gertatzen.

Askotan pasatzen da, lotsagatik edo zenbait arrazoiengatik, emakumeek indarkeria minimizatzen edo justifikatzen dutela, eta gero ez zaie sinesten. Lotura zuzena du “benetako biktimaren” estereotipoarekin; “biktima perfektua” hau da: indarkeria jasan baina salatzen ez duen emakumea, sumisio eta pasibotasun jarrera duena, indarkeria oso larria edo hilgarria jasan duena... Baina errealitatea da ia inork ez duela betetzen estereotipo hori, indarkeriari aurre egin dioten emakumeen profila askotarikoa baita. Gainera, imajinario horretan ere ulertzen da gure gizartean matxismoa jada gaudituta dagoela, eta uste da emakumeek prozesu judizialak erabiltzen dituztela erasotzaileari kaltea sortzeko; salaketa faltsuarena edo *animo spurio* deritzoguna presente dago.

Prozesu judiziala abiatzen da imajinario horren guztiaren gainean. Beraz, noski, emakume askok ez salatzea erabakitzen dute, orokorrean mesfidantzaz ikusten dutelako epaitegia, kontrolatu ezin duten zeozker bezala. Zer emaitza lortu dezakegu prozesuarekin? Emaitza nagusia zigorra izan liteke, baina emakume horrek segur aski nahiko du babesa, indarkeria gelditzea, bizi baldintzak hobetzea... emaitza ez dator bere beharrekin. Azken finean, justizia sistema patriarkala da eta indarkeria erreproduzitzen du. Zuzenbidea ikus dezakegu gauza neutral, abstraktu eta unibertsal moduan, baina

marko juridiko hori egin dute gizon zuri, hetero, eta klase ertain edo altukoek. Hori da zuzenbideak oinarritzat duen subjektua edo hartzailea; emakumeak eta bestelako identitateak bazterrean daude, zuzenbidea ez dago haientzat pentsatuta.

Justizia sisteman aurrerapausoak eman daitezen lanean jarraitu behar da ala beste bide batzuetan jarri behar da energia? Jarraitu behar bada, zein dira jorratu beharreko esparruak?

ARRAIZA: Guk zalantzarik gabe beste bide batzuk jorratzearen alde egiten dugu. Horrek ez du esan nahi bide judiziala ez denik borroka ildo bat izan behar, erabat zilegi da erabili nahi izatea. Tresna bat gehiago da, emakume batzuentzat baliagarri izan daitekeena, hortaz, merezi du hobetzea eta horretarako lan egitea. Egia da aurrerapauso batzuk eman

direla, *Soilik baietz da baietz* legea, adibidez. Kritikatu dezakegu alde onak eta txarrak dituela, baina mugimendu feministaren borrokari esker lortu da eta aitortza merezi du.

Arlo juridikoan zer hobetu? Hainbat kontu, adibidez: indarkeria jendarteko botere harremanen barruan ulertzea, emakumeen kontakizuna zalantzan ez jartzea, fokua jartzea emakume bakoitzaren erreparaziorako beharretan, prozesu judiziale-tan parte hartzen duten guztiek begirada hori guztia barneratuta izatea... Eta kartzela zigor gehiagok indarkeria gutxiago ekarriko duen logika ere aldatu behar da. Emakumeek askotan nahi dutena da ez errepikatzea, beraz, ze lanketa edo tresna proposatuko zaizkio gizon horri?

PLAZAOLA: Bestelako bideak lantzen jarraitu behar da, noski. Baina honi ez zaio fokua kendu behar, efikazia hobetu behar da eta indarkeria

instituzionalari irtenbidea eman. Sistema judiziala humanizatzea eta genero ikuspegia aplikatzea beharrezkoa bezain urgentea da. Epaitegietan gorputza jartzea oso gogorra da, guri profesional bezala ere gogorra egiten zaigu. Giroa, begiradak, komentarioak, etengabe zalantzan jartze hori... emakumeak tratatzen dituzte tramite hotz bat izango balira bezala.

Indarkeria matxistaz ari garenean prozesu penalari buruz hitz egiten dugu, baina gogorarazi nahi dut badagoela ezezagunagoa den eremu bat: bide zibila edo familia prozesuena. Bide hori ere oso biolentoa da. Indarkeria kasu asko ez dira salatzen, eta tramitatzen dira dibortzio eta gurasotasun neurri moduan, epaile zibil edo familia epaileen bitartez. Prozesu horretan badaude tresna juridikoak ahalbidetzen dutenak neurriak hartzea, adibidez, haurren zaintzaren kasuan, aitaga-



MARISOL RAMIREZ / FOKU

tik indarkeria egoeran badaude. Guk erreklamatzeko ditugu legeek jasotako baliabideak, baina epaileek ez dituzte kontuan hartzen, ez dute genero ikuspegirik. Oso isilduta dagoen indarkeria dago prozesu zibiletan, kasu oso bortitzak ikusten ditugu. Epaile, fiskal edota abokatu askok ez dute identifikatzen ikusten ari direna indarkeria dela, eta urgentziazkoa da hori aldatzea. Haur eta familiengan eragin ikaragarria izaten ari da gurasotasun partekatua, indarkeria betikitzen baita kasu askotan. Ildo horretan ere indarra jarri behar da.

Egingarriak diren aldaketa batzuk ikusten ditut. Esaterako, sententzietan irakurketa errazeko sistema erabiltzea, ez hizkuntza kriptikoa. Epaia irakurri behar dituzte zuzenbidean adituak ez diren edozein pertsonak. Prozesua euskaraz egiteko eskubidea ere bermatu behar da. Zuzenbidea zerbitzu sozial bat da, edo hala izan beharko luke, eta gizartera bideratuta egon behar du.

Beste aldaketa bat litzateke kaltea jasan duten pertsonak eta haien beharrik burokratizazioaren gainetik jartzea. Esaterako, sexu erasoen kasuan, delitu semipublikoak direnez, arau orokorra da eraso jasan duen emakumeak erabaki behar duela salaketa aurrera eraman edo ez. Baina borondate hori ez da kontuan hartzen, beste behin, indarkeria instituzionala tarteko. Nahiz eta prozesua hasita egon, fiskalak eta epailek ulertu beharko lukete pertsona horrek atzera egiteko eskubidea daukala.

Lege markoa, Espainiako Estaturak, nola baloratzen duzue? Zertan aurreratu da? Zein dira mugak?

ARRAIZA: Bi lege aipatuko nituzke estatu mailan. Bata, 2004ko genero indarkeriaren, oso mugatua da: genero indarkeria bikotekide edo bikotekide ohi batek egindako erasora mugatzen du, hau da, eremu pribatura. Egia da lege autonomikoek estatuko legea



MANEX MORENO / ARGIA CC BY-SA



"INSTITUZIOENGAN ETA SISTEMA JURIDIKOARENGAN DELEGATZEAREN IDEIA ZABALDU DA, BAINA BERRIRO SINISTU BEHAR DUGU AUTODEFENTSA FEMINISTAN. AHALDUNTZE INTIMOA ERE BEHARREZKOA DUGU"

IDOIA ARRAIZA

gainditzen dutela, EAEkoan identifikatzen da emakumeen kontrako indarkeria dela edozein esparrutan jasaten dena, eta hainbat mota jasotzen dira. Legearen azkeneko berrikuntzan indarkeria instituzionala eta tortura gehitu dituzte emakumeen kontrako indarkeria matxista moten artean. Behintzat paperean aurrerapausoak ematen dira; gero praktikan, tira.

Bestea, *Soilik baietz da baietz* legea, bada aurrerapausoa, behintzat

teorian eta kokapenean; fokua onespenean jartzea baloratzekoa da. Eta denari sexu erasoak deitzen dio, hori mugimendu feministatik borrokatu dugun zerbait da. Horrek ere kritikak jaso ditu, baina nik uste bi eztabaida direla: gauza bat da guztiari eraso deitzea, eta bestea, ea guztia zigor kodetik pasa behar den. Beste gauza batzuk kritikagarriak dira, eta nahiz eta legean dena oso polit jaso, gero kontu asko epailearen interpretazioaren esku gelditzen dira.

Baina aitortu behar da paperean eta prebentzio neurrietan aurrera egin dela. Lege horri esker hainbat autonomia erkidegotan sortu dira sexu erasoak artatzeko krisi zentro integralak, baliabide instituzionalak, dohainik erabili ditzakezunak salaketa jarri gabe ere, aholkularitza juridikoa eta psikologikoa eskaintzen dute, eta abar. Beste gauza bat da zein langile dauden zentro horietan eta zer trataera dagoen... betikoa.

PLAZAOLA: Niri ere iruditzen zait estatuko lege markoa nahiko itxurazkoa dela, bizi garen testuingurua kontuan izanda. 2004ko legeak ez zuen betetzen ezta emakumeen

aurkako indarkeriari buruzko Istanbulgo Hitzarmena ere, baina *Soilik baietz da baietz* legeak markoa eta subjektua zabaldu ditu, eta sexu erasoen kasuan nolabait eskubi-deak parekatu ditu bikote arteko indarkeria jasaten dutenekin. Onespeneraren gaia tipo penalean sartu dutenez, hasi gaitezke epaitegietan beste diskurtso bat erabiltzen. Haurrak eta nerabeak erabat babesteko lege organikoa (LOPIVI, 2021) ere azpimarratzekoa da, ekarri dituelako indarkeria bikarioa eta gurasoen alienazioaren sindromea bezalako kontzeptu berriak. Iruditzen zait benetan ausartak diren legeak direla, tresna praktikoak ematen dituztenak, baita eremu judizialerako baliagarriak ere; potentzial handia dute.

Uste dut ariketa potentia egin dutela errealitatea ikusteko eta zera esateko: emakumeek ez dute jotzen sistema judizialera, bestelako neurriak ere behar ditugu. Horregatik sartu dituzte prozesu judizialekin kanpo dauden elementuak ere, hala nola krisi zentroena, salaketarik jarri gabe ere frogak jasotzeko eskubi-dearena, eta abar.

Beste tresna bat da aurretiaz egin-



“AZKEN LEGEAK BENETAN AUSARTAK DIRA, TRESNA PRAKTIKOAK EMATEN DITUZTENAK, BAITA EREMU JUDIZIALERAKO BALIAGARRIAK ERE. ARAZO HANDIENA DA PAPEREAN GERATZEN DIRELA AURRERAPENAK”

GARAZI PLAZAOLA

dako frogak deritzona. Berez, sexu erasoa jasan duten emakumeentzat Biktimaren Estatutuan jasota dago neurri hori, baina praktikan ez da egiten, ez daudelako ez espazioak ez profesionalak horra bideratuta; orain, LOPIVI n onartu dute 14 urte artekoei aurretiaz egin behar zaizkiela frogak, baina ikusiko da nola egingo duten. Berbiktimizazioa murriztu lezake neurri hori betetzeak, esan nahi duelako deklarazioa behin bakarrik hartzen dela, profesional

gaituen bitartez, eta ez duela gehiago errepikatu beharko kontakizuna.

Indarkeria zer den definitu behar da? Indarkeria matxista mota guztiak judizializatu behar dira?

ALEJANDRA CODESAL: Indarkeria zer den zehazteko eztabaidan Gasteizko Mugimendu Feministan egin dugun autokritika edo hausnarketa da ezin dugula erasoen zenbaketa hutsa egin. Indarkeriaren garrantziaz ohartarazteko, askotan erasoak zenbakitu ditugu, testuingururik jarri gabe. Horrela indarkeriaren zabaltasuna mahai gaineratzea bilatzen zen. Baina gaur egun formula berriak pentsatzea dagokigu: intentsitate altu eta baxuagoko erasoez hitz egitea ez da indarkeriari garrantzia kentzea, adibidez. Indarkeriaren intentsitateari buruz aritzeak funtzio politikoa izan dezake, eta indarkeria ezberdinak kokatzen lagunduko digu, alarmismoan eta belduraren kulturaren erori gabe. Sektore guztiok dugu hori egiteko ardura, eta hedabideen lana ere bada erasoei izaera estrukturala ematea.

ARRAIZA: Indarkeria guztiak izendatu behar dira, izendatzen ez dena ez delako existitzen. Indarkeria zuzenaz ari garenean garrantzitsua da ulertzea sexu erasoak, adibidez, ez direla kasu puntualak eta isolatuak, baizik eta gertatzen direla egiturazko indarkeria dagoelako. Egiturazko indarkeria oinarritzen da arlo ekonomikoan, materialean eta botere banaketa desorekatuan. Indarkeria sinboliko eta kulturala ahaztu gabe.

Horrek ez du esan nahi indarkeria guztiak judizializatu behar direnik, hasteko, ezinezkoa delako. Baina indarkeria guztien aurrean irtenbideak behar ditugu. Lehenik ikusgarri egin behar dira eta, ondoren, tresnak behar ditugu geldiarazteko eta posible den neurrian ez errepikatzeke. Emakumeek nahi dituzte egin dieten minaren aitortza eta



berriro ez gertatzeko bermea. Argi dugu sistema penala gogortzeak ez duela indarkeria amaituko. Kartzelek ez dute aldaketa sozialerako balio, kontrara, sistema patriarkalaren balioak indartzeko balio dute.

PLAZAOLA: Mugimendu feministak indarkeria izendatzeko lan handia egin du, eta horri esker norberak errazago identifikatzen du. Hala ere, dena judizializatzeak ez luke zentzu handirik izango, sistema kolapsatu egingo litzateke. Uste dut zentzuzkoa dela kode penala kasu larrienetarako bakarrik baliatzea. Errealitatean, gutxiengoa dira bide judiziala aukatzen dutenak, beraz, soluzioa beste nonbait egon behar da.

■ **Sistema judizialaz gain, beste hainbat bide jorratu dira indarkeria matxistari aurre egiteko. Zein dira bide horiek eta orain zein puntutan gaude? Nola baloratzen dituzue?**

CODESAL: Autodefentsa feminista da Gasteizko Mugimendu Feministatik aldarrikatzen dugun erreminta, eta beti kokatu dugu sistema penaletik kanpo. Ez dugu esaten sistema judiziala erabiltzea zilegi den edo ez; halere, uste dugu erasoak testuinguru zehatzetan gertatzen direla, komunitatean, eta beraz, komunitatean artatu beharko genituzkeela. Autodefentsa feminista zer den definitzen joan gara eta horretan jarraitzen dugu, ibilian. Erreferentzia handia egiten diegu babes sareei, kolektiboan artatzeari, espazioak feminista bilakatzeari... Horretarako, protokoloak eratzen dihardugu, eta guk hiru arlotan jartzen dugu fokua: pedagogia, prebentzioa eta erantzuna.

Protokoloa lotu ohi dugu eraso bat gertatzean berehala erantzutearekin, azkar eta automatikoki. Baina ez da hori bakarrik: protokoloak iruditeri feminista bat eskaini behar du, eta esperientziak erakutsi digu protokoloa existitzeak berak izan dezakeela funtzio prebentiboa; nahiz eta



“INDARKERIAREN INTENTSITATEARI BURUZ HITZ EGITEAK FUNTZIO POLITIKOA IZAN DEZAKE, ETA INDARKERIA EZBERDINAK KOKATZEN LAGUNDU, ALARMISMOAN ETA BELDURRAREN KULTURAN ERORI GABE”

ALEJANDRA CODESAL

ez duen esan nahi erasoak ez direnik existituko. Protokoloak ez dira jai guneeetarako bakarrik, baizik eta erakusten du espazio horrek bere burua feministatzat duela, berme batzuk emango dituela ahalik eta eremu seguruena izateko, eta ziurtatu beharko luke norbaitek eraso egin diotela sentituz gero babes sare bat izango duela, besteak beste. Ikuspegi zabala izan behar dute, zeren erantzunean zentratutako protokoloek muga asko

dituztela ikusi baitugu: automatismoan erortzeko arriskua, erasoak jasan duenaren hitza eta borondatea kontuan ez hartzea protokoloa zehatz-mehatz jarraitzeagatik... Gasteizko Mugimendu Feministan ikasi dugu prozesuak aldatzen eta eztabaidak eta hausnarketak sustatzen.

Artatzeen ardura kolektiboa izan behar da. Espazio batean hainbat kolektibo badaude eta tartean mugimendu feminista, ez da gure zeregina soilik protokoloak sortzea eta espazioa feminista bilakatzea. Gizon zisheteroen ardurari ere dei egin behar diogu, askotan erasotzaileak haien inguruan daudelako eta funtzio prebentiboa izan dezaketelako. Mahai gainean dugun eztabaida da zer egin erasoak gertatzen denean; askotan gizonak alboratu egiten dute erasoak egin duena, ez dutelako nahi harekin identifikatzea. Baina helburua ez da arazoa leku batetik bestera mugitzea. Inguruak ere izan behar du funtzio bat erreparazioan, akonpainamendua egin behar du.

ARRAIZA: Hiru bide nabarmenduko ditut: autodefentsa feminista, salaketa anonimoak eta bestelako justizia eredu komunitarioak. Salaketa anoni-

moena pil-pilean dago, eta iruditzen zait *Me too* bezalakoa dinamika izan daitezkeela beste bide bat salaketa soziala egiteko, bide judizialek kanpo. Gero eztabaidatu dezakegu zeintzuk diren aukerak eta mugak eta zer dakarren horrek guztiak.

Bestelako justizia eredu komunitarioen kasuan, jada lantzen ari gara nola kudeatu erasoak elkarrekin edo kolektibo baten barruan gertatzen direnean. Nola egin prozesu integral bat, erasoak jasan duen pertsona eta bere beharrak erdigunean jarrita. Adibidez, pertsona horrek ohiko bizitzarekin jarraitu dezan, igual erasoak egin duenak ezin dituen espazio batzuk erabili, eta ezin da erreferente kultural-politikoak izan. Bitartean lanketa egitea eskatuko zaio erasoak egin duenari, ardura hartzea; azkeneko helburua izango da pertsona horrek benetan eraldaketa izatea, eta berriro bueltatu ahal izatea bizitzara, espazioetara, baldin eta erreparazioa egon bada. Egia da prozesu horiek egiteko baldintza jakin ba-

tzuk behar direla eta oso gutxitan daudela, baina aukera bat gehiago da, eta hainbat tokitan fruituak ematen ari da. Justizia eredu paraleloak dira, justizia eraldatzailatik egindakoak.

PLAZAOLA: Artatze bide horiek guztiak ezagutzen nituen, eta oso interesgarri egiten zaizkit. Horretan zabilatzatenok badakizue ez dela gai erraza, eta ezin da idealizatu edo kritikotasuna galdu. Baina eraikitze prozesu honetan elkar elikatu dezakegu, eta ikasketa oso interesgarriak atera, sistema judizialean ere aplikatu ditzakegunak. Beste bide hauek ere lantzen jarraitu behar da.

Justizia eredu feminista aldarrikatzen du mugimendu feministak. Zer da eta nola egiten da? Zer erakutsi du azken urteotako aplikazioak?

ARRAIZA: Justizia feminista eraikitze bidean dagoen kontzeptua da, bai teoriarik bai praktikan. Teorikoki, esango nuke justizia feminista jus-

tizia erreparatiboan oinarritzen dela, erreparazioan zentratzen da: erasoak jasan duen pertsonarena, harremanarena, komunitatearena. Uleritzen da bi aldeek konpromiso bat hartzen badute posible dela egoera konpontzea. Eta justizia eraldatzaila saiatzen da indarkeria baimendu duten aurreko baldintzak aldatzen, eraldaketa integralagoa egiten. Ideia horietatik edaten du justizia feministak.

Niretzat justizia feminista da erasoak jasan duen pertsonaren duintasuna eta erreparazioa erdian jartzen dituen justizia. Inportanteena ez da zer egiten den, baizik eta zein intentziorekin. Adibide bat jartzeko: komunitatetik egiten diren prozesuak izan daitezke justizia feminista egiteko modu bat, non erasoak egin duenak benetan onartzen duen mina eragin duela eta horren ardura hartu nahi duela. Baina ez badu hori onartzen, beste bide batzuk hartzea edota salaketa publikoak egitea ere justizia feminista izan daitezke, baldin



IDOIA ZABALETA / FOKU

eta erasoja jasan duen pertsonaren duintasuna eta erreparazioa erdigunean badaude.

CODESAL: Justizia feministaz go-goetatu genuen urtarrean Atarrabian, Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxak antolatutako *Indarkeria matxista jakean* jardunaldieta, eta uste dugu han aipatutako hiru irizpide hauek oinarritzeko izan behar direla prozesuak abiatzeko: ez errepikatzeko bermea, arduragabetasunari aurre egitea eta kaltetutako subjektuen erreparazioa. Prozesua asko aldatzen da mina eragin duenak hartzen duen arduraren arabera, batzuetan bere irudi ona mantentzeko soilik egiten baitu, eta ikusi behar da ea benetan konpromiso bati lotuta doan.

Horrez gain, guretzat garrantzitsua da lotura izatea beste borroka sektorial batzuekin eta pertsonaren behar materialak bermatzearekin. Ezin dugu justizia feministaz hitz egin ez badago etxebizitzarako sarbiderik, ez badago enplegu duina izateko aukerarik, ez badaude behar material batzuk bermatuta. Askotan indarkeria matxista jasaten dutenak dira beste indarkeria batzuek kolpatutako subjektuak. Hori guztia kontuan hartu behar da justizia feministak egiteko.

■ **Gaur egun zer pisu dauka gizartean justizia feministak honek? Zenbaterainoko eragina dauka? Zenbateraino jotzen da justizia feministak horretara?**

ARRAIZA: Justizia feministak oso abstraktua da, zerbait oso potoloa. Zaila egiten zait galdera horri erantzutea. Ez da sistema judiziala hautatu edo justizia feministara jo, bata edo beste. Gauza asko barnebiltzen ditu justizia feministak, autodefentsa feministaren filosofiatik salaketa anonimoetara. Feministok beti saiatu gara gure egia, aitortza eta erreparazioa lortzen, emaitza hobeto edo okerragoekin, baina saiakera



“EMAKUMEEK SARE SOZIALETAN TOPATU DUTE GURE KONTAKIZUNAK EGITEKO MODU ASKOZ IRISGARRIAGOA ETA SEGURUAGOA. GURE AHOTSAK ENTZUNARAZTEKO BIDE JUDIZIALA BAINO ASKOZ ERAGINKORRAGOA DA”

GARAZI PLAZAOLA

horretatik ari gara eraikitzen justizia feministak.

Bestelako prozesu komunitarioak martxan jartzeari dagokionez, uste dut oso komunitate zehatzetan egiten dela, gure espazio politizatuetan-eta, ez dago inola ere jendartean orokortuta. Behar batetik sortu da, ikusita besteak ez digula balio, esperimentatzen eta praktikatzeko ari gara ea lortzen dugun beste modu honetara. Dituzten zailtasun guztiekin, oso prozesu zailak eta gogorrak baitira.

CODESAL: Justizia feministak beza-lak identifikatzen ez diren praktika asko justizia feministarekin lotuta egon daitezke. Baldintzetako bat da pertsona isolatuta ez egotea, eta artikulazio minimo bat egotea babes sare batekin. Indarkeriari aurre egiten diona ama bada, adibidez, bizitza komunitarioa baliatu daiteke babesa antolatzeko: bere haurren aisialdi taldekoekin harremana izatea, auzoko merkatariarekin... edo lagun talde bat izatea ere. Nahiz eta paradigma feministak ez izan buruan, babes sare horiek antolatuta egotea justizia feministak izan daiteke. Horretaz hausnartu behar dugu, nola ahalbidetu mekanismoak eta aliantzak hainbat testuingurutan sare horiek egiteko.

■ **Sare sozialetan salaketak asko ugaltu dira. Zergatik gertatu da hau orain? Zeri erantzuten dio? Zein funtzio betetzen dute?**

PLAZAOLA: Ez daukat oso garbi zergatik orain, baina ikusi dugu baze-torrela: AEBetako *Me too*, estatuan Cristina Fallarásen kontua eta liburu-a... Emakumeek sare sozialetan topatu dute gure kontakizunak egiteko modu askoz irisgarriagoa eta seguruagoa. Gure ahotsak entzunarazteko izugarritzko beharra dago, eta horretarako prozesu judizialak eskaintzen duen bidea baino askoz eraginkorragoa da hau.

Komunikabideetan interes handia sortu du, baina bulegoan komentatzen duguna da guri ez digula batere harritu; egunerokoan gertatzen den indarkeriaren isla bat da, sintoma bat, eta oso positiboa da argitara ateratzea. Potentzial handia dauka, oso ikusgarri egin duelako indarkeria zenbaterainokoa den, ze normalizatuta dugun, eta ze gertu daukagun. Bilakaera eraldatzaileagoa izan dezan, prozesu kolektiboago bat egin behar da ezinbestean, baina hori hurrengo urratsa izango litzateke.

ARRAIZA: Internetek eta sare sozia-lek aukera eta muga asko dituzte, eta hau da adibide bat. Espazio hori hartu dezakegu, gure hitza eta bizipe-nak kontatzeko, besteak irakurri eta ikusteko ez zaidala niri bakarrik gertatu, konplizitatea sentitzeko eta animatzeko nirela kontatzera, nahiz eta anonimoa izan, zeren oso gogorra baita zure buruari aitortzea era-so bat jasan duzula.

Nik ere uste dut kristoren poten-tziala dagoela, eta igual batzuentzat hori dela erreparaziorako lehen pausoa. Zer gertatzen ari da? Ikusgarri egin dela ze tamainakoa den eta ze estrukturala den indarkeria, eta etorri dela erreakzio matxista eta fa-xista, horri zilegitasuna kentzera eta berriro ere gure hitza zalantzan jar-tzera, beste toki guztietan bezalaxe.

Sare sozialetan kontatu ordez epaitegira banoa ere zalantzan jarriko da, hori ez da irtenbidea. Jendarteak ez du onartu nahi patriarkatuaren indarkeria ze errotuta dagoen eta noraino iristen diren hori onartzeak dakartzan eraginak, horregatik dator erreakzioa. Ardura kolektiboa izan behar da, guztiok gaudelako inplikaturak. Erasotzaileak ez dira muntxoak, pertsona normalak dira, izan daiteke nire anaia, semea, bikotekidea... eta hori guztia onartzea oso gogorra da, ez gaude prest.

CODESAL: Mina kanalizatzeko bide bat izan daiteke. Bide penaletik kanpo errelatoa kokatu ahal izateko modu bat da, zuk nahi duzun baldintzetan eta prozesua zuk gidatzeko gutxieneko bermeekin. Oso prozesu berria da, oraindik hausnarketa asko ekarriko dizkiguna; argi-ilunak ditu. Aipatzen duzuen potentziala badauka, baina askotan mugimendu feministan zalantza dugu ea zer egin salaketa mezu horiekin guztiarekin, guk artatu beharko bagenu bezala. Eta askok ez dute hori bilatzen, besterik gabe askatzeko beharra dute, eta agian badituzte sare sozialetatik kanpo beste mekanismo batzuk.

Mugak ere baditu, guretzat beharrezkoa da erasoak testuinguruan jartzea, eta horrelako testigantzekin ez da hain erraza. Egiturazko irakurketa ezin dugu ahaztu, bestela testigantzen uholdeak eraman gaitzake erasoaren normalizaziora edo borroka feministak ezer lortu ez duen sententziora. Erronka asko dakartza gaitzake, eta kolektibotik heldu behar diogu honi ere.

Indarkeria matxista salatzeak beste bide bat kalea da. Kaleko protestek goia jo dute? Eraginkorrak dira?

ARRAIZA: Ez dut uste eraginkortasuna galdu dutenik, galdu dute inpaktua. Duela urte batzuk hasi ziren gero eta jendetsuagoak izaten, Martxoak 8ko manifestazioak eta eraso



“SISTEMA PENALA GOGORTZEAK EZ DU INDARKERIA AMAITUKO. KARTZELEK EZ DUTE ALDAKETA SOZIALERAKO BALIO, KONTRARA, SISTEMA PATRIARKALAREN BALIOAK INDARTZEKO BALIO DUTE”

IDOIA ARRAIZA

batzuen kontrakoak oso ikusgarriak izan ziren. Orain galdu da inpaktu hori. Hala ere, manifa jendetsu horiek ilusio efektua egin dute, argazki horiek ez dira errealek izan; modatik asko izan du eta, are, kapitalismoak hartu nahi izan du olatu hori aberas-teko. Orain ikusi behar da modak ze arrasto utzi duen.

Hainbat gauza lortu ditugu mobilizazioen bitartez, adibidez, sanferminetako talde bortxaketak piztuta-

ko protesten harira egin dute *Soilik baietz da baietz* legea. Eta olatuak ere ekarri du erreakzio matxista indartsua, ez bakarrik eskuinetik, ezkerretik ere bai: erresistentziak jartzen dituzte protokoloak betetzeko, errazago jartzen dute zalantzan guk esandakoa, eta gazteen artean ere ikusten ari gara. Orain erronka da lortu ditugun gauza horiei eustea, eta kalea beti izango da eraginkorra. Inpaktua galtzeak ez du esan nahi kaleko protestak erabili behar ez ditugunik.

CODESAL: Kaleko presentzia ezin bestekoa da, bai indar agerraldia egiteko, bai kalera ateratzeko espazio jakin batzuetara mugatuta dauden diskurtsoak. Eztabaida batzuen inguruan marra gorri batzuk markatzeko balio du. Ez da inoiz bateratuta egongo mugimendu feministaren diskurtsoa eta kalean egon daitekeena, baina gerora jendartearen sartzen doazen ideia batzuk markatzen ditugu kaleko mobilizazioetan. Gaur egungo egoera da urteetan egin diren borroken ondorioa, eta horrela izaten jarraitu behar du.

Kalea hartzearena zentzu literalean ulertzen dugu: espazioetan

iruditegi feminista sartzea, mezu feministek presentzia izatea, borroka desberdinen arteko elkarlaguntza sareak egitea, ikusaraztea mugimendu feministak zein borrokarekin egiten duen bat. Aliantzak egitea ere kalea hartzea da, horrek bermatzen baitu manifestazio jendetsuak egin ahal izatea, 2023ko greba feminista orokorra adibide.

PLAZAOLA: Indarkeria matxista gertatzen den egoera ia denak familia barruan edo intimitatean izan ohi dira. Eremu hain pribatuko errealitateak direnez, erabat beharrezkoa da horiek ikusaraztea, espazioa hartzea eta diskurtso horiek egotea, sareetan zein kalean.

■ **Bestelako defentsa feminista mekanismoak zer moduz daude orain, ahuldu egin dira? Bide berriak probatzeko garaia da? Nondik jo?**

ARRAIZA: Autodefentsa feministaren filosofia berrartu behar dugu. Ikastetxeetan ikusten dugu neska gazte asko oso ahaldunduta daudela eta gai direla ikaskideei erantzuteko, adibidez. Baina egia da beste askok ez dutela inondik inora barneratuta, eta babes handiagoa eta Polizia gehiago nahi dituztela. Instituzioengan eta sistema juridikoarengan delegatzearen ideia zabaldu da, eta uste dut berriro sinistu behar dugula gure defendatzeko gaitasunean, indibidualki eta kolektiboki erantzuteko eta gauzak beste modu batera kudeatzeko gaitasunean. Autodefentsa feminista oso lotuta egon da jaietan erasotzailea tabernatik botatzearekin eta abar, baina ez da hori bakarrik. Jakinda erasoen gehiengoak pertsona ezagun baten partetik gertatzen dela, edo ligatzen ari garenean pasatzen zaizkigula zenbait egoera, beharrezkoa

dugu ahaldundute intimoa: nire desioa lehen planoan jartzeko, mugak jartzeko, ni neu gai izateko egoera horiek kudeatzen.

Olatuaren beherakadan gaude, eta birpentsatzen ari gara nondik jo behar dugun. Emakumeen Mundu Martxaren Atarrabiako jardunaldiak ere horretarako izan ziren, besteak beste, protokoloa bezalako tresnak berritzeko beharra ikusi dugulako. Mugimendu feministatik etengabe ari gara pentsatzen indarkeriari aurre egiteko estrategien eta tresnen inguruan, eta horrela jarraituko dugu, momentuko egoerari eta aukerei egokitu.

CODESAL: Ez dakit inflexio puntua den edo ez, baina egia da gaur egun komunikabideak arreta izugarria ematen ari direla bide judizialari; eta bermeak beste nonbait daude. Nik ere bat egiten dut autodefentsa feministaren aldarriarekin. Errepi-



katuko dut: kolektibitate eta babes sareetatik antolatu behar ditugu erantzunak, kasu bakoitzaren tes-tuinguruaren arabera.

Nik ikuspegi nahiko positiboa daukat. Egindako borroka eragina izan du beste belaunaldi batzuetan, eta ikusten dugu gazte talde batzuek autodefentsa feministaren ideia buruan sartuta dutela, eta ez bereziki mugimendu politikoetan antolatuta daudenek. Saskibaloitaldeetan, adibidez, identifikatzen ari dira entrenatzaileen edo beste figuren jarrera matxistak, eta neskek eurek abiatzen dituzte defentsa mekanismoak, eta saretzen dira salaketak elkarrekin egiteko. Dena den, egia da sektore batzuetan presente egon daitezkeela babesa delegatzearen ideia edota Polizia gehiago eskatzearena. Beti egongo gara tentsio horretan, etengabe diskurtsoa fintzen: mugimendu feministak diskurtso bat plazaratu badu eta sektore batzuetan erabilerarik politikoa egin bada zigorrak handitzeko eta kartzelaren defentsa egiteko, guk tira egin beharko dugu, gogorarazteko mugimendu feministak kartzelaren aurkakoa izan behar dela, eta beste bide batzuk defendatu behar ditugula.

PLAZAOLA: Gu oso zentratuta gaudu gurean, beraz, nondik jo dezakegu operadore juridikoek? Buru belarri lantzen ari garena da prozesu judizialak emakumeen beharretara egokitzea. Esperientziak erakutsi digu prozesu juridikoetan emakumeak artatzeko moduak erabat aldatzen duela beraien erreparazio maila. Lehen arretan dauden pertsona eta langile guztiak genero ikuspegi gaituak izan behar dira; gizarte zerbitzuak, berdintasun sailak, emakumeen etxeak, krisi zentroak, Ertzaintza, epaitegiak... Irulen saiatzen gara artatzeak behar bezalako baldintzetan egiten, ikusten dugu bide hori dela hobetu dezakeguna. Formazioetan saiatzen gara transmititzen egiteko forma berri horiek.



**“GIZON ZISHETEROEN
ARDURARI ERE DEI EGIN BEHAR
DIOGU, MAIZ ERASOTZAILEAK
HAIEN INGURUAN DAUDE
ETA FUNTZIO PREBENTIBOA
IZAN DEZAKETE. ASKOTAN
GIZONEK ALBORATU EGITEN
DUTE ERASOA EGIN DUENA,
EZ DUTELAKO NAHI HAREKIN
IDENTIFIKATZEA”**

ALEJANDRA CODESAL

■ **Erakunde publikoak zein puntutan daude? Zer exijitu behar zaie?**

CODESAL: Erakundeek diskurtso feministak egin dituzte, baina ez dituzte aplikatu. Baliabideak jarri behar dituzte, baina ez soilik berdintasun politiketatik, baizik eta oro har inbertsioetan, osasun sisteman, hezkuntza sisteman, gizarte politikan... Behar materialak bermatu behar dituzte. Kaletik hasita presioa egin behar dugu, ikuspegi intersektorialetik. Horregatik egiten dugu lan beste kolektibo batzuekin aliantzan, gure borroka ez dugulako ulertzen berdintasun politikak bakarrik exijitzea bezala, baizik eta osotasunean gutxieneko eskubideak bermatzeko borroka bezala.

ARRAIZA: Indarkeria matxistan fokua jarrita, horra bideratuta dauden baliabideak handitzea, ez izatea prekarioak erabiltzaileentzat, langileek soldata duinak edukitzea eta instituzioek eskainitako zerbitzuak ez izatea berbiktimizazioarako beste toki bat. Psikologo espezializatuek

artatzeko itxaron zerrendak ezin dira 4-6 hilabetekoak izan, adibide bat aipatzearen.

PLAZAOLA: Lehen mailako gatazka sozial eta politiko bezala hartu behar dugu gaia, kontu serioa da, baina ez dauka isla hori aurrekontuetan. Legeak jada ahalbidetzen dituen bide horiek guztiak jorratzeko baliabideak behar dira; arazo handiena da paperean geratzen direla aurrerapenak, eta horrek ez digu ezertarako balio. Legitimazio politikoa badago, baina sektore handienaren borondate politikoa ez da errealia. Gai hauekin lanean gabil-tzanok zein arduradun politikoek ikusten dugu zerbitzu gehienak gainezka daudela aspalditik, eta ez dela nahikoa.

Horrez gain, azkenaldi luzean ikusten dugu artatzen ditugun kasuetan etxebizitzaren gaia errepikatzen den arazoa dela, batzuetan zentrala. Etxebizitzarako sarbiderik ezak indarkeria betikotzea eragiten du, edozein mota eta egoera ekonomikoko familietan. Emakume eta haur asko indarkeria egoeratan bizi dira, ezin dutelako etxe horretatik alde egin; hala ez balitz, indarkeria geldiarazteko konponbidea askoz azkarragoa izango litzateke. Etxebizitzarena emergentzia sozial oso potoloa da.

CODESAL: Tokian tokiko eragileek proposamen zehatzak dituzte eta erakundeek aukera dute horietatik abiatuta aurrerapausoak emateko. Aukera dute etxeko langileek, pentsiodunek edota etxebizitza kolektiboek dituzten aldarri zehatzak jasotzeko eta hortik beste sistema bat eraikitzeak pausuak emateko.

■ **Hedabideak sexu erasoen bozgorailu oso indartsuak bihurtu dira. Baina ondo ari gara? Erasoen albiste uholdea eskaintzeak ondorio txarrik badu? Nola jokatu beharko genuke hedabideak?**



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

ARRAIZA: Komunikabideak bozgarailu izatea eta zerbait ikusgarri egitea bere horretan ez da txarra, baina kasuen trataeraren arabera, komunikabideak lagunak edo etsaiak izan daitezke. Komunikabide hegemoniko eta tertulia batzuek bilatzen dituzte morboa eta polemika, sexu erasoen gaiarekin dirua ateratzeko. Lortzen duten bakarra da gauzak nahastea, erasoak jasan duenaren hitza zalantzan jartzea, erasotzaileari eta diskurtso matxistei tokia ematea... oso-oso kaltegarria da.

Izan dezakete alde ona ere, baldintza batzuk errespetatzen badituzte: indarkeria egiturazko auzi gisa kokatzen badute, eta erasoak gauza puntual bezala ez badituzte tratatzen. Kasu jakinak baliatu behar dituzte oinarritzko indarkeria hori guztia azaltzeko, ulertarazteko nondik datorren, eta ardurak eskatzeko bereziki zis gizonei, baina baita komunitateari eta jendarte-

ri ere. Erreferente positiboak ere behar ditugu, adibidez, eraso batek defendatu eta bere kabuz irten-dako emakumeen kasuak.

CODESAL: Apustu feminista egiten duten hedabideek ahalbidetu behar dituzte gaurkoa bezalako espazioak ere, eta ahotsa eman beste esperientzia positibo batzuei, aurrera goazen ideia transmititzeko; erantzun feminista nola antolatzen ari den, zein praktika on erabiltzen diren... Erasoen zenbaketa hutsa egiteak elikatu baitezake emakumeen edo beste identitate batzuen etsipen eta larritasun sentsazioa, eta ez dakar gizonen interpelaziorik. Pentsatu behar dugu zein helbururekin plazaratzen ditugun hainbat mezu eta zer den benetan eraldatzaileagoa. Adibidez, horrelako uholdea ikus-teak izugarri paralizatu dezake bere bizitzan inpaktu handia izan duen eraso bat jasan duen pertsona bat.

PLAZAOLA: Oso garrantzitsua da

gai hauek modu pausatuan tratatzea, eta ikuspuntu desberdinetatik eztabaidatzeko espazioak ematea. Irule bulegokooi komunikabideetatik deitzen gaituztenean, bat-bateko erantzunak eta iritziak eskatzen dizkigute askotan, eta azkartasun hori ez da interesgarria hausnarke-tarako eta eraldaketan eragiteko.

Burura etortzen zait *Soilik baietz da baietz* legearekin komunikabideetan sortu zen zarata. Sufritzen nuen ikusten zigorren berrikuspeneri buruz soilik hitz egiten zela. Ezin nuen sinetsi komunikabideak ez zirela gai legea azaltzeko eta eztabaida kokatzeko: nondik datorren legea, nork egin duen, zertarako... Pertsona espezializatuen bidez azaldu behar da hori guztia, eta ez tertuliakideen bidez. Beharrezkoa da komunikabideetan gure errelatoak egotea, plaza hori ere hartu behar dugu, baina ez edonolako baldintzetan. ●

ARGIA **BABESTEKO 11 ARRAZOI**

1. KAZETARITZA INDEPENDENTEA

Langileona delako hedabide hau, ez inolako banku, multinazional edo alderdirena.

2. EUSKARATIK ETA EUSKARAZ

Gure hizkuntzak funtsezko dituelako euskara hutsean funtzionatzen duten proiektuak.

3. HEDABIDE DIGITALA ETA PAPERKOA

Egunero sarean aktualitatea jorratu eta aldizkarian hats luzeko kazetaritza lantzen dugulako.

4. EZ GARA NEUTRALAK

ARGIA n jendartea eraldatzeko tresna izan nahi dugulako kazetaritza kritikoaren bidez.

5. PODCASTAK ETA DANTAILAK EUSKARAZ

Ehunka dokumental, film-labur, hitzaldi eta abar eskaintzen ditugulako libre eta doan.

6. ELKARLANAK BULTZATUZ

Eragile ugarirekin proiektuak ditugulako: Inor Ez Da Ilegala, Bizi Baratzea, Lurra Herriari Deika, Euskarazko Plazen Sarea...

7. GOOGLE GABE

Gure irakurleen pribatutasuna babesten dugulako teknologia burujabetzan sakonduta.

8. BANAKETA EKOLOGIKOA

Bizikleta bidezko banaketa sustatzen dugulako, plastikorik gabeko zorrotan.

9. 100 URTETIK GORA

Ibilbide luzeko eta etorkizun luzeagoko proiektua delako.

10. MILAKA PERTSONAKO KOMUNITATEA

ARGIA Jendea delako proiektuaren independentziaren bermea.

11. ELKARTASUNEAN OINARRITUTAKO HARDIDETZA

Norberak erabakitzen duelako zenbat ordaindu, inor ARGIArik gabe gera ez dadin.

TXIKITIK ERAGITEN argia.eus/eginargiakoa

